




**EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA**  
evaluación diagnóstica

2010

## PROBAK EGITEKO JARRAIBIDEAK

Derrigorrezko Bigarren  
Hezkuntzako 2.maila

Ikasleentzako materiala



**ISEI•IVEI**

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU  
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN  
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

**ELISKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

# 1. EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

Hurrengo egunotan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailan eskolaturik zaudeten ikasle guztiok proba batzuk egin beharko dituzue (**Euskara, Gaztelania, Matematika eta Gizarte Zientziak eta Herritartasuna**). Proba multzoari **EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA** deitzen zaio eta Euskadiko irakaskuntza hobetzeko eta zuei ikasten laguntzeko oso baliagarria izango da.

Proba bakoitzak bi tresna ditu:

## GALDERA KOADERNOA

Koaderno horretan era eta zailtasun maila ezberdinetako galderak aurkituko dituzu. Koadernoan ez da ezer idatzi behar, irakurtzeko bakarrik da.

## ERANTZUN ORRIAK

Orri horietan liburuxkan egiten diren galderari erantzun behar diezu.

# 2. PROBETAN AURKITUKO DITUZUN GALDERA MOTAK

Probetan HIRU galdera mota aurkituko dituzu:

## ➔ LEHENENGO GALDERA MOTA:

Lau erantzun posible aurkezten dira eta zure ustez zuzena den bakarra aukeratu beharko duzu. Erantzuteko, erantzunaren hizkian **X** bat ipini behar duzu. Begiratu ondoko adibide hau:

**01**

Asteak zenbat egun dauka?

- A. 2 egun.
- B. 4 egun.
- C. 7 egun.
- D. 10 egun.

**A**

**B**

**C**

**D**

Galdera bat erantzun ondoren okertu zarela uste baduzu, **EZABATU** zure lehenengo erantzuna eta **X** batez markatu zure ustez egokia den erantzuna.

➔ **BIGARREN GALDERA MOTA:**

Zenbait galderatan taula bat aurkituko duzu eta bi aukeraren artean bat hautatu beharko duzu. Begiratu ondoko adibide hau:

**02** Jarraian astearen egunei buruzko baieztapen batzuk dituzu. Markatu X batekin EGIAZKOAK ala GEZURREKOAK diren. Begiratu adibidea:

	EGIAZKOAK	GEZURREKOAK
1. Egunek 24 ordu dituzte.	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
2. Astelehena astearen hirugarren eguna da.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
3. Asteartearen ondoren igandea doa.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

Lehen ikusi dugun bezala, galdera bati erantzun ondoren okertu zarela uste baduzu, zure lehenengo erantzuna **EZABATU** eta **X** batez markatu zure ustez egokia den erantzuna.

➔ **HIRUGARREN GALDERA MOTA:**

Galdera gutxi batzuk irekiak dira. Horrek esan nahi du erantzuna zeuk **IDATZI** beharko duzula. Hori egiteko tarte zuria aurkituko duzu. Begiratu ondoko adibideak.

**03** 2. mailako 24 ikaslek zenbait galderari erantzun diete gehien gustatzen zaien asteko egunari buruz. Hauek izan dira erantzunak:

- Erdiek igandea aukeratu dute.
- 7k larunbata aukeratu dute.
- Gainerakoek asteazkena aukeratu dute.

Zenbat ikaslek aukeratu dute asteazkena?

.....



**04** Idatzi hiru arrazoi zergatik jaiegunak gustatzen zaizkizun gehien justifikatzeko:

1	
2	
3	



05

lazko udan 13 aste opor izan genituen, baina aurten 11 aste izango ditugu. Adierazi bi uden artean zenbat opor egun izango diren.

**Ebatzi problema, egin dituzun eragiketak eta emaitza bertan adieraziz.**

**Eragiketak:**



**Emaitza:** \_\_\_\_\_

06

Beste batzuetan, **IDAZLAN BAT** idatzi beharko duzu; halakoetan gutxienez zenbat hitz idatzi behar duzun esango dizugu. Aurreko adibideetan bezala, zerbait idatzi behar duzunean ondoko irudia aurkituko duzu:



.....

.....

.....

.....

.....

### 3. KONTUAN IZAN BEHAR DITUZUN ZENBAIT ALDERDI

- Galdera itxiak zein irekiak (testu laburrak eta idazlanak) erantzuteko **boligrafoa eta tipexa** erabili beharko dituzu.
- Matematika proban kalkulagailua erabil dezakezu, baina ez da beharrezkoa.
- Oso garrantzitsua da galdera bakoitza osorik eta arretaz irakurtzea; gainera, ondo pentsatu behar duzu erantzuna idatzi baino lehen.
- Saia zaitetz ahalik eta galdera gehien erantzuten.
- Galdera baten erantzuna zein den ez badakizu, utzi erantzun gabe eta joan zaitetz hurrengo galderara. Bukatzen duzunean, astirik baldin badaukazu, erantzun gabe utzi dituzun galderetara itzul zaitetzke.



**OSO GARRANTZITSUA: ERANTZUN GUZTIAK PROBA EZBERDINETAN EMANGO ZAIZKIZUN ERANTZUN ORRIETAN IDATZI BEHAR DITUZU.**

**EZ IDATZI EZER GALDERA KOADERNOETAN.**